



**Mondragon
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea**



www.mondragon.edu/huhezi

2022-2023
IKASTURTEKO MEMORIA



AURKIBIDEA

Sarrera eta aipamen historikoa	4
Txosten akademikoa	10
a. Graduak	11
b. Unibertsitate masterrak	12
c. Graduondoak: aditu tituluak eta espezializazio diplomak	13
d. Etengabeko prestakuntza	14
e. Ikerketa eta transferentzia:.....	14
i. Ikerketa	15
ii. Transferentzia eta aholkularitza.....	17
iii. Argitalpenak eta zabalkundea	19
iv. Hirugarren zikloa: doktorego programa.....	20
Egoera ekonomiko-finantzarioa	21
Kudeaketa organoak.....	23
Fakultateko langileak	25



SARRERA
ETA
AIPAMEN
HISTORI-

**SARRERA ETA
AIPAMEN HISTORIKOA**

Memoria honetan, 2022-2023 ikasturtearen laburpena jaso dugu. Zer egiten dugun eta, bereziki, nola egiten dugun ezin dugu memoria honetan jaso, baina badakigu hori dela gure ekarpen nagusia. Egunerokoan, ekintza bakoitzean, hitz eta soinu bakoitzean Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI) osatzen dugunok erakusten dugun pasioa, inplikazioa eta konpromisoa; gure ikasleengan, eskoletan, kooperatibetan, erakundeetan eta gure testuinguruan, finean, gizartean eragitea. Horregatik, eta ezer baino lehen, zorionak eta eskerrik asko HUHEZIKo kide guztioi!

Laburpenera etorrira, 2022-2023 ikasturteko zenbait arlotako gertakizun nabarmenenak jasoko ditugu hurrengo lerrootan.

Arlo akademikoari dagokionez, aurrez aurreko gradu ikasketetan, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Ikus-entzunezko Komunikazioan eta Humanitate Digital Globaletan, 1.086 ikasle izan ditugu guztira. Aurten ere, bigarren graduak edo aipamenak eta gradu osoa online egiteko aukera eskaini dugu Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan. Guztira, modalitate erdipresentzian, 239 ikasle izan ditugu.

IKASLEAK:
GRADU
MODALITATE GUZTIAK

1.086

MODALITATE
ERDI-PRESENTZIALEKO
IKASLEAK

239

Unibertsitate masterren arloan, 2022-2023 ikasturtean, 220 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eskaini dituen lau unibertsitate masterretan. Aurten, Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate master berria abiatu dugu, BCCrekin batera. Gainera, DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterraren 14. edizioari ekin diogu –bi modalitatetan: duala eta erdipresentziala–. TeamLabs-ekin elkarlanean, Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterraren - LIT master amaierako lanak egin ditugu, baita Kooperatibismoabn eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterraren - MCOOP 3. edizioa ere.

Etengabeko Prestakuntzan, zazpi titulazio eskaini ditugu 2022-2023 ikasturtean, eta 155 profesional izan ditugu gure artean. Eskainitako programa horietako hainbat elkarlanean eskaini ditugu, OlatuKoop, MGEP, Enpresagintza, Reimagine Education Lab edo TeamLabs-ekin batera. Aipatzekoak dira, halaber, eskaini ditugun diploma berriak: Eskola Eraldatzeko Pedagogia eta Kudeaketa espezializazio diploma, Ikus-entzunezko Ekintzailetzan eta Berrikuntzan aditu diploma eta Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Conexão Mundo, Brasil).

Ikastaro laburrak ere eskaini ditugu, modalitate irekian, eta 61 ikaslek parte hartu dute. Ikastaro horiez gain, zenbait prestakuntza eskaerari ere erantzun diogu. Kooperatibismoarekin lotuta, guztira 71 formakuntza saio egin ditugu, eta 1.318 ikaslek parte hartu dute. Hezkuntzari dagokionez, ikastetxe eta erakundeek eskatutako hainbat prestakuntza bideratu ditugu.

Hirugarren ziklora begira, aipatzekoa da doktorego programaren barruan oinarritzko ikerketa prestakuntza eskaini dugula aurrean ere. 2022-2023 ikasturtean, 28 doktoregai matrikulatu eta lau tesi aurkeztu dira.

Aurrerapausoak eman ditugu ikasleen mugikortasunean; hala, 2022-2023 ikasturtean, 131 ikasle joan dira atzerrira, eta 78 ikasle Espainiako estatura. Gradu curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.250 egonaldi egin dira 2022-2023 ikasturtean, ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. *Incoming* ikasleei dagokienez, atzerriko 26 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Ikerketaren arloan, aipatzekoa da Fakultateko ikertzaileek zenbait deialdi konpetitibotan lortutako proiektuen kopurua (Europako Batzordearen deialdiak, MINECOrenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, Eusko Jaurlaritzarenak...), hezkuntzaren arloan zein kooperatibismoaren arloan. 2022-2023 ikasturtean, guztira 72 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 27 artikulua, 6 liburu eta 9 liburu kapitulu argitaratu ditugu inpaktu altu eta ertaineko aldizkari edo argitaletxeetan. Haietatik 24 euskaraz izan dira.



Transferentzian ere aurreko ikasturteetako bideari jarraitu diogu; proiektu asko egin ditugu 2022-2023 ikasturtean: 64, hain zuzen. Proiektu horiek hezkuntza eta kooperatibismoa jakintza arloetan landu dira. Hezkuntzaren arloan, ekarpena egin dugu etapa guztietan; alegia, HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Kooperatibagintzaren esparruan, berriz, proiektuak garatu ditugu gizarte berrikuntzan, hezkuntza kooperatiboan eta gizarte eraldaketan, besteak beste.


Esandakoaz gain, HUHEZI Kooperatiba Elkartearen helburua gure komunitatea osatzen dugun pertsona guztien garapen profesionala bermatzea da. Horretarako, pertsonen garapenerako markoaren lehen fasea aurrera eraman dugu, harrera plana hobetu dugu, gaikuntza plana eskaini dugu, hizkuntza gaitasunak bultzatzeko eskaintza sendoari eutsi diogu, eta, azkenik, norberaren garapenerako ad hoc eskaerak indartu ditugu. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea espazio esanguratsua izan dadin, eta ikasleei begira, bizitza unibertsitarioa sustatzen jarraitu dugu. Hala, besteak beste, euskararen inguruko hausnarketa eta motibazioa sortzeko kultura ekimenak bultzatu, Huhezinema film laburren jaialdiaren 16. edizioa antolatu, eta kirol-eskaintza esanguratsua eskaintzen jarraitu dugu.



AIPAMEN HISTORIKOA

IKUSPEGI KRONOLOGIKOA

DATA ESANGURATSUAK



2010

- Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate masterra - Ekomu
- Berrikuntza Didaktiko Metodologikoko Proiektuen Garapena Hezkuntza Erakundeetan unibertsitate masterra - Berrimet

2011

Hizkuntza Biziberritzeko Estrategiak aditu titulua

2012

Euspot euskarazko spot lehiaketa

2013

- Aretxabaletako campusaren inaugurazioa
- Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programa

2014

- Hezkuntza gradu osoak online
- Ekonomia Soziala eta Enpresa Kooperatiboa unibertsitate masterra - MCOOP

2019

- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra - Lit
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra modalitate erdi-presenzialean
- Herrigintzaren berrikuntzan unibertsitate aditu titulua
- Hezkuntza Kooperatiboa espezializazio diploma

2018

KoLaborategiaren sorrera

2017

Berrikuntza metodologikoa Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza graduetan

2016

Fakultatearen 40. urteurrena

2015

Berrikuntza metodologikoa Ikus-entzunezko Komunikazio graduan

2020

- Dorleta eraikinaren inaugurazioa
- Humanitate Digital Globalak gradua - HDG
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra - MCOOP
- Chief Learning Officer unibertsitate espezializazio diploma - CLO
- Ikaskuntzarako Rol Berriak Hezkuntzan unibertsitate espezializazio diploma - ROL
- Prestakuntza Pedagogikoa Gastronomia eta Ostalaritza Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)
- Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumen, Jasangarritasun eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat unibertsitate aditu titulua (Conexão Mundo. Brasil)

2021

- Arreta Psikologikorako Zerbitzua (APZ) abian
- Pertsonen Garapenerako Eredu (PGE) berria
- AS Fabrik campusaren inaugurazioa

2022

- Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra
- Eskola eraldatzeko pedagogian eta kudeaketan espezializazio diploma
- Ikus-entzunezko Ekintzailertzan eta Berrikuntzan aditu diploma
- Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Conexão Mundo. Brasil)

TXOSTEN AKADE- MIKOA



GRADUAK

2022-2023 ikasturtean, jarduera hauek garatu ditugu lau graduetan:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetan, ikasketa plangintza berria inplementatu dugu lau mailetan. Eskola-komunitatea proiektu partekatua (EKKP) barnean, alternantzia eredu bat inplementatu dugu bi graduetako laugarren mailetan. Guztira, 130 ikasle eta 62 ikastetxe.
- Ikus-entzunezko Komunikazioaren graduan, ikasketa plangintza berria inplementatu dugu laugarren mailako bi ibilbideetan: Ikus-entzunezko Sormena eta Komunikazio Digitala, azken hau DUAL ereduaren.
- Humanitate Digital Globalak - HDG graduan, hirugarren maila inplementatu dugu. Ikasleek praktikak egin dituzte zenbait erakunde eta enpresatan.

Datuetera etorrira, 2022-2023 ikasturtean, eta askotariko modalitateak kontuan hartuta, graduko 1.325 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean; haietatik 426 lehen mailako ikasle berriak izan dira. Honela daude banatuta ikasleak graduka:

Graduak	1.325 ikasle 864 emakumezko 461 gizonezko
Haur Hezkuntza	347
Lehen Hezkuntza	737
Ikus-entzunezko Komunikazioa	182
Humanitate Digital Globalak - HDG	59

Graduko curriculum praktikei erreparatuta, guztira 1.250 egonaldi egin dira 2022-2023 ikasturtean, ikastetxe, enpresa edo erakundeetan. Haietatik 130 alternantzia ibilbidean egin dira, eta 10 DUAL ibilbidean. Gainera, curriculumetik kanpoko beste 78 praktikaldi ere egin dituzte ikasleek ikasturte honetan.

Mugikortasun programari dagokionez, pandemia aurreko kopuruak berreskuratu ditugu 2022-2023 ikasturtean. 209 ikasleek parte hartu dute mugikortasun programan: 131 ikasle joan dira atzerrira eta 78 Espainiako estatura. Incoming ikasleei dagokienez, atzerriko 26 ikasle etorri dira gure nazioarteko programetara.

Ikasle berrien orientazio ekintzei dagokienez, ikasturte honetan, ate irekien ekitaldiak egin ditugu lau graduetan, Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Bilboko campusetan; modalitate presentziala berreskuratuta, gainera. Guztira, 1.059 parte-hartzaile izan ditugu. Antolatutako onarpen probetan, bestalde, 588 ikasleek parte hartu dute.

Graduarekin lotutako beste ekitaldi batzuk ere antolatu dira; esaterako, Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdia, Euspot Euskarazko Spot Lehiaketa, ikasle egresatuen orla banatzeko ekitaldia eta bestelako ekintza publiko batzuk.

UNIBERTSITATE MASTERRAK

2022-2023 ikasturtean, 220 ikasle izan ditugu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean eskaini ditugun lau unibertsitate masterretan. Generoari erreparatuta, ikasle horietatik 117 emakumezkoak izan dira, eta 103, gizonezkoak.

2022-2023 ikasturtean, lau unibertsitate master hauek eskaini ditugu horietatik bat, berria:

- Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra (1. edizioa).
- DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (14. edizioa).
- Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra (3. edizioa).
- Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra.

Unibertsitate masterrak	220 ikasle 117 emakumezko 103 gizonezko
Gastronomiako Irakasle Prestakuntza unibertsitate masterra	18 ikasle
DBHn eta Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra	176 ikasle
Kooperatibismoan eta Kudeaketa Sozioenpresarialean unibertsitate masterra - MCOOP	18 ikasle
Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan unibertsitate masterra - LIT	8 ikasle



GRADUONDOKOAK: ADITU TITULUAK ETA ESPEZIALIZAZIO DIPLOMAK

Profesionalei zuzendutako zazpi graduondoko eskaini ditu Fakultateak ikasturte honetan:

- Kooperatibagintzan aditu diploma (15. edizioa)
- KoopFabrika Ekintzailtza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko aditu diploma (7. edizioa)
- Hezkuntza Kooperatiboan aditu diploma (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (3. edizioa)
- Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (1. edizioa)
- Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumenaren, Jasangarritasunaren eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma (Brasilgo Conexão Mundo programaren barruan) (2. edizioa)
- Eskola Eraldatzeko Pedagogia eta Kudeaketan espezializazio diploma (1. edizioa)
- Ikus-entzunezko Ekintzailtzan eta Berrikuntzan aditu diploma (1. edizioa).

Graduondoko horietako batzuk lankidetzan gauzatu ditugu. Hala, Lanbide Heziketako Irakasleen Prestakuntza Pedagogikora bideratutako adituetan, Mondragon Unibertsitateko fakultateak izan dira lankide: Ingurumenaren, Jasangarritasunaren eta Energien eremukoan, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, eta Komunikazio eta Marketinekoan, Enpresagintza. KoopFabrikakoa, berriz, OlatuKoop-ekin batera bideratu da.

Graduondokoak: aditu tituluak eta espezializazio diplomak	155 ikasle 82 emakumezko 73 gizonezko
Kooperatibagintzan aditu diploma	25 ikasle
KoopFabrika: Ekintzailtza Sozial Kooperatiboko eta Ekonomia Sozialeko aditu diploma	42 ikasle
Hezkuntza Kooperatiboan aditu diploma	20 ikasle
Prestakuntza Pedagogikoa Komunikazio eta Marketineko Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma	15 ikasle
Prestakuntza Pedagogikoa Ingurumenaren, Jasangarritasunaren eta Energien Eremuetako Lanbide Heziketako Irakasleentzat aditu diploma	15 ikasle
Eskola Eraldatzeko Pedagogia eta Kudeaketan espezializazio diploma	25 ikasle
Ikus-entzunezko Ekintzailtzan eta Berrikuntzan aditu diploma	11 ikasle

ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

2022-2023 ikasturtean, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak formakuntza eskaini du kooperatibismoaren, hezkuntza berrikuntzaren eta komunikazioaren jakintza arloetan.

LANKI Kooperatibismoaren Ikertegiak formakuntza kooperatiboa eman dio kooperatibetako zenbait eragileri: bazkide berriei, organo sozialetako kide berriei eta kooperatiba batzuetako bazkide/langile kolektibo osoei. 2022-2023 ikasturtean, honako kooperatiba hauetan eman du formakuntza: Ampo, Athlon, Arabarren, Fagor Arrasate, LKS Next, Sistema Cooperativista Brasileiro (OCB), Eika, Dikar, Gomiztegi eta askotariko kooperatibetako organo sozialetako kideei. Guztira, 71 formakuntza saio izan ditugu, eta 1.318 pertsonak parte hartu dute.

Hezkuntzari dagokionez, hainbat ikastaro labur eskaini ditugu, eta ikastetxe eta erakundeek eskatutako hainbat prestakuntza bideratu ditugu. Ikastaro laburretan, 61 ikasle izan ditugu. Hiru ikastaro izan dira: «Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategiak», «Irakaslearen rola erraztailetza gisa eta proiektuen diseinua» eta «Ikasleen irteera-profila hezkuntza eraldatzeko oinarri gisa».

IKERKETA ETA TRANSFERENTZIA

2022-2023 ikasturtean, 25 ikerketa proiektu eta 64 transferentzia ekimen garatu ditugu. Hurrengo lerrootan bilduko ditugu ekimen aipagarrienak.



IKERKETA

2022-2023 ikasturteko ikerketa jarduna hezkuntzan, komunikazioan, kooperatibismoan eta humanitateen eremuetan kokatu da. Lan esparru horietan, honako lan ildo hauek izan dira nagusi:

- Hizkuntzak eta kulturak eskolan eta gizartean
- Gizarte zientziak, erronkak eta arrakalak
- STEM eta digitalizazioa
- Hezkuntza prozesuak
- Kooperatibismoa
- Humanitateak eta gizarte berrikuntza

Hona hemen 2022-2023 ikasturtean bereziki deialdi konpetitiboetatik eratorritako ikerketa aipagarrienak:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
EU4DUAL - European University Alliance for Cooperative Education	Europar Batasuna	EU4DUAL hezkuntza duala oinarri hartzen duen europar aliantzaren barnean, gaiari buruzko ikerketa
Personalised digital learning paths to foster social-cooperative entrepreneurship (MyDigiCoop)	Europar Batasuna	Unibertsitateko profesionalen kompetentziak eta tresnak aberastu nahi dira haien ikasleen ekintzaitza sozial kooperatiboa sustatzeko.
Unfolding Collaborative Online International Learning Didactics (UCOILD)	Europar Batasuna	Graduko ikasleen bestelako nazioartekotze esperientziak sustatu nahi dira.
Engagement of Non-Traditional Students in Professional in professional Higher Education - InclusiPHE	Europar Batasuna	Ikasle guztien parte-hartzea sustatzeko esku-hartze multzoak sortuz, ekarpena egin nahi du unibertsitatea ingurune inklusiboago bat izaten laguntzeko.
El potencial de la alfabetización específica del área para fomentar el deeper learning en Educación Secundaria dentro del marco de Pluriliteracies Teaching for Learning (PID2019-111655RA-I00) (ALPHA)	Espainiako Hezkuntza Ministerioa	DBHko ikasleen ikaskuntza sakona bultzatu nahi da arlo horretako alfabetatzean eraginez.
#FP21. Aprendizaje basado en retos para una industria 4.0 abierta	Espainiako Hezkuntza Ministerioa	Erronka bidezko ikaskuntzan oinarritutako ekimenak sustatu nahi dira Lanbide Heziketako zentroetan.
Irakaslegai gazteak euskararen eragile? Nondik eta nora	Eusko Jaurlaritza	Etorkizuneko irakasleek euskararen sustapenean duten rola du aztergai proiektu honek.
Hezkuntza eta prestakuntza kooperatiboen bazkideengan eta haien enpresa kooperatibetan dituzten ondorioak	Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK)	Proiektu honen helburua hezkuntza eta prestakuntza kooperatiboen bazkideengan eta kooperatibetan dituzten ondorioak aztertzea da.
Arantzazulab ikerketa: demokrazia	Arantzazu Gaur Fundazioa	Gizarteari buruzko hausnarketaren barruan, demokraziaren kontzeptualizazioan sakontzen du egitasmo honek.

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
TikTok euskarazko hitz jolaserako tresna gisa esperimentatzen	Gipuzkoako Foru Aldundia	Helburu nagusia da euskararen ahozko erabilera sustatzea, eta, horretarako, Tik Token hitz jolasekin esperimentatzea bultzatzen da.
Bergarako Herri Proiektua eta eraldaketa soziala lantzeko egitasmoa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Eraldaketa soziala sustatzeko asmoarekin, Bergaran Herri Proiektua eraikitzea du jomugan proiektuak.
MONDRAGON ZTIM HUB II: ZTIM bokazio eta jakintzak lantzeko HUB sarea hedatzen	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektu honen bidez, ZTIM bokazio eta jakintzak sustatu nahi dira gazteengan, eta, horretarako, HUB sarearen hedapena baliatu da.
STEMotiv: Adimen artifizialaren eta datu adimenaren bidez ikasleen STEM motibazioa piztu, Gipuzkoako ikasleen etorkizuneko kalitatezko enplegua sustatzeko	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektuaren xede nagusia adimen artifiziala eta datu adimena baliatuz ikasleen STEM motibazioa piztea da.
LanHezi: Enpresak eta Lanbide Heziketako ikastetxeak lankidetzan, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan eta etorkizuneko enpleguaren kalitatean eragiteko ezagutzaren sorkuntza II	Gipuzkoako Foru Aldundia	Enpresa eta ikastetxeetako beharrak identifikatu, eta, hortik abiatuta, pertsonen, ikasleen eta langileen gaitasunak garatu nahi dira, norberaren garapenerako markoa ezarriz, kultura eraikiz eta aurrera eramanez.
ENPLEGATZEN: Etorkizuneko langileen enplegarritasuna indartzeko programa eta «GipuzkoHarrok» lehiaketa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Proiektuaren helburu nagusia da etorkizuneko langileen enplegarritasuna indartzeko programa bat eta lehiaketa bat diseinatzea, aurrera eramatea eta ebaluatzea.
Pertsona erantzulea enpresa kooperatiboan II: erakunde-faktoreen garapena	Gipuzkoako Foru Aldundia	Ikerketa ekintza egitasmo baten bidez, kooperatibetan erantzunkidetasunaren kultura hedatu bat garatzeko esku-hartze proposamenak sustatu nahi ditu proiektuak.
Lurralde lankidetz, interkooperazioa eta garapen iraunkorra: FAGOR TALDEA eta MONDRAGONeko kasuen gaineko ikerketa-ekintza	Gipuzkoako Foru Aldundia	FAGOR taldeak eta Mondragonek lurralde lankidetz, interkooperazioa eta garapen iraunkorra sustatzeko egindako lana aztertu nahi du ikerketa-ekintza honek.



TRANSFERENTZIA ETA AHOHKULARITZA

Transferentzia eta aholkularitza proiektuei dagokienez, 64 proiektu gauzatu ditugu Fakultatean, hezkuntzaren, kooperatibismoaren eta gizarte berrikuntzaren jakintza arloetan.

Hezkuntzaren esparruan, ekarpena egin dugu etapa guztietan; alegia, HHn, LHn, DBHn, Lanbide Heziketan eta Unibertsitatean. Aholkularitza eta transferentzia proiektuek hezkuntza berrikuntza izan dute oinarri, eta askotariko gaiak jorratu ditugu: ikaste-irakaste metodologiak, eraldaketa digitala, hizkuntzen trataera integratua, ikaskuntza sakona, parte-hartzea, hezkidetzak, ebaluazioa eta konpetentzia-markoa, besteak beste. Are gehiago, ikastetxeen eremutik harago, hezkuntzaren eta komunitatearen arteko harremana jorratu dugu hainbat transferentzia ekimenetan.

Kooperatibagintzaren esparruan, askotariko transferentzia ekimenak garatu ditugu: gizarte berrikuntzaren arloko aholkularitza, kooperatibentzako formakuntza kooperatiboaren diseinua eta inplementazioa, gizarte eraldaketaren inguruko hausnarketa prozesua enpresa kooperatiboetan, edo bazkide berrientzako eta organo sozialentzako formakuntza kooperatiboak. Halaber, aipatzekoa da garapen jasangarrirako helburuekin eta ekintzazailtza sozial-kooperatiboarekin lotuta egin dugun lana.

Hona hemen hezkuntza-berrikuntzaren eta kooperatibismoaren inguruko aholkularitza eta transferentzia ekimen aipagarri batzuk:

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Lanbide Heziketako ikastetxeen plan digitalak 2022/2023	Tknika	Tknikako ikastetxeetan plan digitalak garatzeko transferentzia ekimena
Lurralde Eskola Kooperatiboak: tokiko ekosistema kooperatiboak sustatzeko formazioa eta tresnak sortzea	Olatukoop	Lurralde Eskola Kooperatiboaren barnean, ekosistema kooperatiboak abiarazteko gakoaren lanketa
Bertsozale Elkarteko bertsolari-irakasleen prestakuntza gogoetatsua gelako praktiken analisietatik abiatuta. Araba-Bizkaia-Gipuzkoako ikastariak (3. ikasturtea)	Bertsozale Elkartea	Gelako praktika gogoetatsua oinarri moduan hartuta, bertsolari-irakasleen garapenerako prozesua
Arrasateko hezkuntza esparru formaleko zein ez-formaleko hezkuntza eragileekin egindako diagnostiko partekatuen ikerketa lana	Arrasateko Udala	Hezkuntzako esparru formal zein ez-formaleko eragileekin herriko egoeraren diagnostiko partekatua osatzeko prozesua
MGEPEko masterreko ikasleen profilaren azterketa	MGEP	Masterreko ikasleen profilaren azterketa eta profil hori sustatzeko estrategien definizioa
Debako euskararen historia soziolinguistikoa: hezkuntza	Debako Udala	Debako euskararen historia soziolinguistikoa zehazteko prozesua, hezkuntza ardatz hartuta
Hizkuntzaren lanketa arloetan	Sansomendi	Arloetan hizkuntza nola landu jorrazteko prozesua
Komunikazio konpetentziak ardatz, ikaste testuinguru eta proposamenen diseinu, inplementazio eta ebaluaziorako marko propioa eraikiz	Urgain, Errekalde, Oñati	Ikastetxeko marko propio partekatua eraikitzekeko prozesua

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Ahozko hizkuntzaren lanketa arlo guztietan	Ikasbidea, Durana	Arlo guztietan ahozko hizkuntza nola landu jorrazteko prestakuntza
Errenteriako hezkuntza-komunitatea saretuz, erantzunkidetasunean sakontzen duen prozesua garatzeko proiektua	Errenteriako Udala	Errenterian hezkuntza komunitatearen erantzunkidetasunean sakontzeko prozesua
«Ordiziako Hezkuntza Komunitatea Saretuz» prozesua garatzeko proiektuaren aholkularitza zerbitzua 2022	Ordiziako Udala	Ordiziako hezkuntza komunitatea erantzunkidetasunez saretzea sustatzeko ekimena
Durango hezkuntzaren diagnostiko partekatua garatzeko prozesua	Durango Udala	Durango, hezkuntzaren diagnostiko adostu bat eraikitze prozesua
Implementación del PLE como metodología en Proyectos de Educación Transformadora	Fundación Paz y Solidaridad Navarra	Hezkuntza proiektu eraldatzaileetan PLE metodologia implementatzen laguntzeko gakoien lanketa
Euskara eta Kulturartekotasuna Arnasguneetan	UEMA	Arnasguneetan euskara sustatzeko gakoien lanketa kulturartekotasuna aintzat hartuz
Mintzola egitasmoa	Euskaltzaindia	Euskararen normalizazioa eta erabilera sustatzeko prozesua
Curriculumaren irakurketa STEAM begiradatik (2022-2023)	Innobasque	Curriculumaren azterketa STEAM ikuspegitik
Ko-irakaskuntza: oinarriak eta eginbideak (2022-2023)	EHI	Ko-irakaskuntzaren oinarriak eta eginbideak jorrazteko prozesua
Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren diseinua eta inplementazioa (2022/2023)	Kristau Eskola	Ikastetxeetan Hizkuntza Proiektuak diseinatzeko eta aurrera eramateko lanketa
LHko proiektu interdisciplinarrak: oinarriak eta hautu metodologikoak (2022-2023)	Kristau Eskola	LHn proiektu interdisciplinarrak garatu ahal izateko oinarriak eta hautu metodologikoak jorrazteko prozesua
Arloetan hizkuntza lantzeko oinarriak eta metodologia (2022-2023)	Kristau Eskola	Arloetan hizkuntza lantzeko oinarriak eta metodologia lantzeko prozesua
Eremukako Proiektu Interdisciplinarrak DBHn	Kristau Eskola	DBHn eremukako proiektu interdisciplinarrak garatu ahal izateko oinarrien lanketa
Euskararen erabilera eta kulturartekotasuna Zaldibiako Hezkuntza Komunitatean	Zaldibiako Udala	Hezkuntza esparruan euskararen erabilera sustatzeko prozesua kulturartekotasuna aintzat hartuz
Euskara eta Kulturartekotasuna Zestoan	Zestoako Udala	Kulturartekotasun testuinguruetan euskara sustatzeko gakoien lanketa
Hezkuntza eta hizkuntza proiektuen diseinua, inplementazioa eta jarraipena	Larrun Lizeoa	Ahozko kompetentzia sustatzeko metodologiaren lanketa
Ikaste-objektuen ulermen eta ikaskuntzarako estrategiak (2022-2023)	Iñigo Aritza ikastola	Ikaste-objektuen ulermen eta ikaskuntzarako estrategien lanketa
Ebaluazioa aldatu ikaskuntzan eragiteko (2022-2023)	Ikasgiltza	Ikaskuntzan eragiteko ebaluazioa eraldatzeko prozesua

Proiektua	Erakundea	Deskribapena
Strengthening educational and cooperative development ties between The Evolution Institute and MONDRAGON	Evolution institute	Izaera eta kultura kooperatiboak sustatzeko ekimenak
«Ordiziako Hezkuntza Komunitatea Saretuz» prozesua garatzeko proiektua	Ordiziako Udala	Ordiziako hezkuntza komunitatea erantzunkidetasunez saretzea sustatzeko ekimena
Euskara eta Kulturartekotasuna Zestoan	Zestoako Udala	Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko ekimena
Euskararen erabilera eta kulturartekotasuna Zaldibiako hezkuntza komunitatean	Lardizabal Herri Eskola	Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko ekimena
LHko eta DBHko proiektu interdisciplinarrak. La Inmaculada	La Inmaculada	LHn eta DBHn proiektu interdisciplinarrak jorratzeko ekimena
Conduct research and present results on reward systems that share organizational performance with employees through employee ownership, profit sharing, or related plans (2022-2023)	Saint Mary's University	Antolaketa partekatua duten erakundeetako erretribuzio sistemen inguru ikerketaren ondorioztatze eta zabaltze lana
Berba-lapiko. Garapen metodologikoa ahozko kompetentzietan aurrera egiteko	Soziolinguistika Klusterra	Ahozko kompetentzia sustatzeko garapen metodologikoa bilatzen duen transferentzia ekimena
Zaintza bizitzaren erdigunean proiektua	Alboan Fundazioa	Zaintza bizitzaren erdigunean jartzeko lanketa

ARGITALPENAK ETA ZABALKUNDEA

2022-2023 ikasturtean, guztira 72 argitalpen kaleratu ditugu. Haien artean, 27 artikulua eta 6 liburu kapitulu argitaratu dira inpaktu altuko eta ertaineko aldizkari edo argitaletxeetan. Argitalpenen herenak euskaraz izan dira.

Argitalpen zientifikoak	72
Artikulu zientifikoak	27
JCR, SJR, CiteScore, CIRC A edo B, CARHUS+ A edo B	19
CIRC C edo D, CARHUS+, INRECS, LATINDEX, MIAR...	7
Bestelakoak	1
Liburuak	6
Liburu kapituluak	9
SPI	6
Kongresu eta jardunaldietako komunikazioak	18
Kongresu aktak (argitaratuta)	4
Argitaratu gabe	14
Dibulgaziorako argitalpenak	2
Bestelakoak	2
Tesiak	4
Tesi laburpenak	4

Argitalpen zientifikoak	72
Euskarazko argitalpenak	24
eBiltegian	27
Garapen jasangarrirako helburuekin lotuta	20

Argitalpenez gain, ikasturte honetan, ikerketa proiektuekin lotutako 29 ekitaldi antolatu ditugu. Gainera, ikerketari buruzko 10 prestakuntza mintegi egin ditugu ikasturtean zehar.

HIRUGARREN ZIKLOA: DOKTOREGO PROGRAMA

2022-2023 ikasturtean, 28 lagun matrikulatu dira Universitat de Vic - Central de Catalunya (UVic-UCC) unibertsitatearekin batera eskaintzen dugun Berrikuntza eta Esku-hartzea Hezkuntzan doktorego programan. Haietako lauk ikerketa prestakuntza osagarria egin dute doktoregoaren barnean.

Bestalde, aipatzekoa da doktorego programaren araudia egokitu dugula, doktorego industrialak baimentzeko. Egun, haien erakundeen eta unibertsitatearen arteko hitzarmena sinatu eta gero, bi doktoregai ari dira haien erakundeko proiektu baten bueltan tesia garatzen.

Horrez gainera, ikasturte honetan, Vic-en egin da doktorego programaren 10. jardunaldia. Bertan, hizpide izan da doktorego-tesiak nazioartekotzearen erronka.

Azkenik, aipatzekoa da lau doktoregaik egin dutela tesiaren defentsa 2022-2023 ikasturtean eta haietako batek nazioarteko aipamena lortu duela.



EGOERA EKONO- MIKO- FINAN

**EGOERA EKONOMIKO-
FINANTZARIOA**



Arlo ekonomiko-finantzaria etorrira, 2022-2023 ikasturteko sarrerak 12.847.725,19 eurokoak izan dira, eta gastuak, berriz, 12.735.687,30 eurokoak. Beraz, aldeko emaitza 112.037,89 eurokoa izan da.

Ikasturte honetan, 163.668,5 euroko inbertsioak egin dira, eta nagusiki urteroko ohiko inbertsioetara bideratu dira. Finantzaketa berezko funtsetatik edo funts propioetatik etorri da.

Balantzeari dagokionez, egoeraren balantzearen aktibo eta pasiboa 15.216.448,81 eurokoa zen 2023ko abuztuaren 31n.



KUDEAKE- TA ORGA- NOAK

**KUDEAKETA
ORGANOAK**



ANTOLAKETA EGITURA

DEKANOA: Nagore Ipiña

ZUZENDARITZA KONTSEILUA

Nagore Ipiña: Fakultateko dekanoa

Aitziber Arregi: Zuzendari akademikoa

Iñaki Larrea: Ikerketa eta Transferentzia arloko zuzendaria

Ainara Artetxe: Hezkuntza Berrikuntzaren arloko zuzendaria

Goio Arana: Komunikazioaren arloko zuzendaria

Ainara Udaondo: LANKI

Kooperatibismoaren Ikertegiko zuzendaria

Karmele Perez: Profesionalen

Prestakuntzako zuzendaria

Ainhoa Leturiaga: Administrazio eta

Finantzetako zuzendaria

KONTSEILU ERREKTOREA

Amaia Agirre: Lehendakaria

Nekane Arratibel: Lehendakariordea

Nagore Iñurrategi: Idazkaria

KIDEAK:

Aitor Zuberogoitia

Igor Ortega

Miren Erdozia

Javier Marcos

Jose Ramon Zubizarreta

Urko Retegi

Julen Olaizola

Nora Garcia

Ane Urresti



FAKULTA- TEKO LANGI-

FAKULTATEKO LANGILEAK





Hau guztia ez litzateke posible izango proiektu honetan inplikatu eta parte hartu duten lagun hauen guztien konpromiso sendorik gabe:

- Aginaga Inza Itsaso
- Aguirre Garcia Nerea
- Alberdi Ruiz de Alegria Amaia
- Aldabaldetrekuz Gonzalez de Txabarri Rita
- Alijostes Sanmiguel Amaieur
- Alonso Amezua Idurre
- Altuna Morcillo Saioa
- Alvarez Huerta Paula
- Amesti Urien Nerea
- Anton Ustaritz Eneko
- Apraiz Ansola M.Carmen
- Apraiz Larruzeta Itxaso
- Aramendia Echeverria Olatz
- Arana Arrieta Goio
- Arebitorre Landeta Eunate
- Arias Hermoso Roberto
- Aristi Narbaiza Jon
- Arratibel Insausti Nekane
- Arregi Landa Itziar
- Arregui Iribecampos Aitziber
- Arregui Murguiondo Xabier
- Arrese Errasti Gotzone
- Arriaran Olalde Iñigo
- Arroyo Sagasta Amaia
- Arteta Elguezua Joseba
- Artetxe Aranaz Ainara
- Astigarraga Agirre Idoia
- Azcarraga-Urizar Ugarte Itziar
- Azkarate Iturbe Oxel
- Azkue Lete Iker
- Azpeitia Eizaguirre Agurtzane
- Azpitarte Astobiza Amaia
- Barandiaran Arteaga Alexander
- Barnes Julia Diana
- Barquin Lopez Maria Amelia
- Bartolome Urquiola Julen
- Beitia Sasiain Loredi
- Belategi Unzueta Onintza
- Bergara Eguren Jokin
- Biain Bidarte Amaia
- Bikuña Munduate Miren Agurtzane
- Bilbao Eraña Ainara
- Bonilla Bermejo Maria Del Carmen
- Caballero Ramirez Izaskun
- Cabezón Virto Marina
- Cancio Orueta Leire
- Carmona Igartua Unai
- Carpintero Martin Ana Belen
- De La Iglesia Gamboa Egoitz
- Echaburu Osa Mikel
- Egaña Osa Jose Maria
- Egizabal Ollokietegi Diego
- Eizaguirre Eizaguirre Andoni
- Elgoro de Tena Maite
- Elortegi Garcia Naroa
- Elorza Gogenola Eztizen
- Elustondo Astigarraga Izar
- Escandon Lucea Eunate
- Esquibel Montero Nagore
- Etxebeste Liras Onintza
- Etxezarreta Etxarri Lander
- Fallon Mary Sinead
- Flores Puga Beñat
- Galindez Nafarrate Edurne
- Gallardo Bolaños Enzo
- Galparsoro Garcia Rosa Maria
- Garcia Fernandez Letizia
- Garitano Laka Paulo
- Garro Larrañaga Eneritz
- Gastañazatorre Gorrochategui Idurre
- Goikoetxea Agirre Miren Nekane
- Gomez Aguirrebeitia Aintzane
- Gonzalez Arenaza Ainhoa
- Gonzalez Atucha Patricia Aranzazu
- Gorospe Arzubia Ane
- Gorroño Viteri Naiara
- Gorrotxategi Alberdi Julene
- Gostin Elorza Andres
- Higuero Fuentes Andrea
- Ibarro del Canto Asier
- Igoa Eriz Xabier
- Imaz Aguirre Ainara



- Imaz Alias Oier
- Iñurrategi Irizar Nagore
- Iñurritegi Leio Nekane
- Ipiña Larrañaga Nagore
- Irizar Mezo Asier
- Jimenez Arrieta Olaia
- Jimenez de Aberasturi Zapatero Sara
- Juaristi Olaechea Itxaro
- Kanpandegi Berrotaran Aritz
- Kapelastegi Osoro Ibane
- Kareaga Irazabalbeitia Ariane
- Kortabarria Urain Iñigo
- Laparra Guillen Iker
- Larrañaga Elorza Ainhoa
- Larrea Arana, Mireia
- Larrea Hermida Iñaki
- Larreategui Alday Ane
- Lasa Zuzuarregi Gurutz
- Laskurain Bidaburu Leire
- Lauzurica Arrondo Asier
- Leceta Ruiz de Alegria Ion
- Lersundi Perez Amaia
- Leturiaga Letona Maria Ainhoa
- Lopez Salas Nerea
- Loyola Idiaquez Aitzol
- Madinabeitia Medrano Monica
- Maia Sadaba Markel
- Mansouri Talbi Oumaima
- Martinez de Lagos Menique Aitziber
- Martinez Gorrochategui Agurtzane
- Mata Oyanguren Oihana
- Mentxakatorre Odriozola Jon
- Mongelos Garcia Maria Aranzazu
- Motrico San Emeterio Paula
- Olea Garramiola Lur
- Ormaetxea Jauregi Unai
- Ortega Sunsundegui Igor
- Otaduy Marauri Oihana
- Ozaeta Elorza Miren Arantzazu
- Pascua Martin Cristina
- Pavon Arrizabalaga Amaia
- Perez Lizarralde Miren Karnele
- Permach Martin Nerea
- Portilla Zaldibar Unai
- Quintas Quintas Marta
- Rodriguez Garitano Jone
- Romero Garmendia Irati
- Rozas Elizalde Iciar
- Ruiz de Austri Arexolaleiba Marixe
- Ruiz de Azua Galdos Miren Edurne
- Sagardia Iturria Irati
- Sagasta Nafarrate Ainhoa
- Salegi Arruti Eider
- Salterain Alberdi Igor
- Sanchez Moran Yera
- Sanchez Murueta Aritz
- Santa Cruz Elorza Sirats
- Sarasua Marichalar Jon
- Sarobe Egiguren Aitziber
- Toledo Delgado Usoa
- Torrealday Gallarreta Amaia
- Torres Lete Maialen
- Udaondo Alberdi Ainara
- Ullibarriarana Garate Mikel
- Uriarte Gurtubai Ibai
- Uriarte Iñurrategi Xabier
- Uriarte Zabala Leire
- Urionaguena Fernandez Mikel
- Urizar Zugazagoitia Ane Miren
- Urkia Guridi Iraia
- Videgain Eneko
- Villada Rodriguez Arrate
- Vitoria Gallastegui Jose Ramon
- Zabala Ibarra Ane Miren
- Zabaleta Mendikute Garazi
- Zarate Herrero Leire
- Zarrabeitia Salterain Endika
- Zuberogoitia Espilla Aitor
- Zuberogoitia Kaltzakorta Miren
- Zubia Zubizarreta Nerea
- Zubizarreta Pagaldai Ane
- Zufiaurre Astigarraga Miren



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Dorleta z/g
20540 ESKORIATZA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu

Otalora 31
20550 ARETXABALETIA
Gipuzkoa
Tel. 943 71 31 40
harrera.huhezi@mondragon.edu

Olagorta kalea 26 (Zorrotzaurre)
48014 BILBO
Bizkaia
Tel. 943 71 41 57
harrera.huhezi@mondragon.edu



www.mondragon.edu/huhezi

ENTITATE LAGUNTZAILEA

